

Ikas ezazu Elkartasuna



Ezagut


ITZAZU MUNDUKO

ARAZOAK



Alboan

Erakusketarako gida



Pedro Arrupe

Pedro Arrupe, gure munduaren lekukoa.

Pedro Arruperen zenbait esaldi eta testu “berreskuratu” ditugu, euretariko batzuk duela 25 urte baino gehiago idatzitakoak¹. Beren garaian bete-betean antzeman zioten orduko gizarteari. Gaur egun ere, indarra galdu barik, gaurkotasun bera dute. Tamalez, Arrupek salatutako egoeretako batzuk ez dira batere aldatu, are gehiago, larriagotu egin dira. Horrexegatik diogu Arrupe gure garaian eta gure munduaren lekukoa dela.

Aurkibidea

Pedro Arrupe, zenbait ezaugarri biografiko	3
Ezagut itzazu munduko arazoak. Ikas ezazu Elkartasuna	
Pobrezia	4
Emakumeak	6
Hezkuntza	8
Haurrak	10
Giza eskubideak	12
Gerrak	14
Errefuxiatuak	16
Kontsumoa	18
Ekologia	20
Gauza asko egin ahal ditugu	22

Alboan fundazio bat da, Jesusen Lagundiak sustatua, herrien arteko elkartasunaren alde lan egiten duena.

Editorea: **Alboan**.

Egileak: Cristina Maoño eta Miguel González.

Gure eskerrik beroenak Sara Muniozgureni testu hau euskaratzeagatik.

¹Arruperen esaldi batzuk Jesusen Lagundiaren ondorengo beste dokumentu batzuekin osatu dira, 34. Batzar Nagusikoekin besteak beste.

Pedro Arrupe, zenbait ezaugarri biografiko.

- 1907**
 - Bilbon jaio zen, Alde Zaharrean. Pelota kalean bizi izan zen. Santiagoko Katedralean bataiatu zuten.
 - Medikuntza ikasi zuen Madrilan (Severo Ochoa, medikuntzako nobel sariduna, ikaskide izan zuen). Lehen harremanak marjinazio eta bazterketarekin.
- 1927**
 - Jesusen Lagundian sartu zen medikuntza ikasketak amaitu gabe.
 - Belgikan, Alemanian eta Estatu Batuetan ikasi zuen. Estatu Batuetan, hispanoen parroketan aritu zen eta segurtasun handiko kartzela bateko presoekin lan egin zuen.
- 1938**
 - Japoniara bidalia. Auzo pobreetan lan egin zuen.
 - Japonian preso, II. Mundu Gerran kanpotarren jazarraldian, espioitzaz akusatuta.
- 1945-64**
 - Hiroshimako bonba atomikoaren lekuko. Medikuntza ikasketei esker biktimekin lan egin zuen. Japoniako Probintziala.
- 1965-80**
 - Jesusen Lagundiko Nagusi Jenerala. • Vatikanoko II. Kontzilioan parte hartu zuen.
 - Kezka nagusia: justizia. 1973: Jesusen Lagundiaren XXXII. Batzar Nagusiak bere misioa birdefinitu zuen: "fedea defendatzea eta justizia sustatzea"
 - Bere jokaerak arazoak ekarri zizkien elizako eta elizaz kanpoko agintariei. Garrantziko testuak: Latinoamerikaz, Estatu Batuetako arrazakeriaz. Mundu guztian zehar ibili zen.
 - Errefuxiatuen aldeko Jesulagunen Zerbitzua (JRS) bultzatu zuen, mundu guztiko errefuxiatuen beharrazanez erantzuteko.
 - Vatikanoarekin izan zituen tirabirak zirela eta, dimititzea pentsatu zuen.
- 1981ean**
 - Filipinetara egindako bidaia batetik itzultzean, garuneko enbolia izan zuen. Gaixoaldian ere jesuitek hartutako bidea bultzatzen jarraitu zuen.
- 1991ko**
 - Otsailaren 5ean hil zen hamar urtetako gaixoaldiaren ondoren.

Arrupez esanak

"Arrupe historiari irekia bizi zen, eta, historian, garaien zantzuei. Hirugarren munduko herrietatik eta lurreko behartsuen begietatik ikusi zuen mundua" (Ignacio Ellacuría)

"Arrupe gure garaiko Elizaren handietakoa dugu. Urrutira begiratzen jakin zuena" (Gustavo Gutiérrez)

Arrupe, bilbotar eta euskaldun unibertsala, amaitzean den mende honen lekuko aparta dugu. Gaur egungo gizon nabarmena, grinatsu borrokatu eta maitatu zuena, ideal bati bete-betean emana.

“Lur honetako gizonen bi herenek ez dute elikagairik, bizilekurik, jantzirik, hezkuntza egokirik eta ia ez dute oinarrizko eskubide hauek lortzeko aukerarik ere, nazioarteko ordena berri bat eratu ezik” (Pedro Arrupe, Filadelfia, 1976). “Munduko toki askotan, baita herririk garatuenetan ere, indar ekonomiko eta sozialek milioika lagun uzten dituzte gizartearen onuretatik kanpo.” (34. B.N., 3. d)

Zer da Pobrezia?


“Pobrezia” zer den zehaztu nahi dugunean, gure inguruan eta albistegietan ikusten ditugun hainbat egoeraren irudiak datozkigu burura. Ziurrenik, lekuko enesak ezagutzea dugu pobrezia hurbiltzeko modurik onena (Nazio Batuen Garapenerako Programa 97)

- *“Pobrezia kriminala da, ez diolako jendeari jendea izaten uzten. Gizakiek paira dezaketen ukapenik krudelena da” (Kolonbiako hezitzailea)*
- *“Pobrezia inoiz jateko nahikoa ez edukitzea da” (Estatu Batuetako eskalea)*
- *“Pobrezia gosea da, bakardadea, eguna amaitzean nora joanik ez edukitzea, gabezia, diskriminazioa, abusua eta analfabetismoa” (Guyanako ama ezkongabea)*
- *“Pobrezia norberaren etxean bizi ezina da. Errefuxiatuen kanpaleku batean bizitzea eta seme-alabentzako aukerarik ez izatea”. (Azerbaijango errefuxiatua)*

Asian eta Saharatik beherako Afrikan egin diren ikerketetan, honelako irizpideak darabiltzate bertakoek pobrea izatea zer den azaltzeko:

- Lurrik, abererik, lanabesik, errotarik... ez edukitzea
- Hilak duintasunez ezin lurperatzea
- Seme-alabak eskolara ezin eramatea
- Etxe txarra edukitzea
- Gizarte laguntzarik ez edukitzea
- Seme-alabak lanera bidali behar izatea
- Lan lotsagarria onartu behar izatea

Lekukotza hauek ikusirik, pobrezia gizakien **oinarrizko beharrizanak asetzeko aukerarik ez izatea** dela esan dezakegu. Gizakia garatzeko oztopoa da eta **ondasunak eta zerbitzuak eskuratu ezina**, eskubideak erabili ezina eta **komunitatearen bizitzan parte hartu ezina** dakar. Pertsona bat pobrea da denok gure baitan ditugun gaitasunak garatzeko aukeretatik kanpo gelditzen denean.



Lima, Perú. **Alboan.**



Zergatik dago pobrezia?


Pobrezia ez da halabeharra eta ez dator ezbehar edo hondamendietatik bakarrik. Pobrezia dago herri eta talde batzuek (Iparraldekoek eta Hegoaldekoek) aberastasunaren sorburuak kontrolatzen eta menperatzen dituztelako: lurra, energia, merkatua, teknologia, zientzia, informazioa, kultura, armak... Gaur egun, %20 aberatsenek munduko sarrera globaletatik %86 jasotzen dute, %20 txiroenek, ordea, %1,3 baino ez.

Nazio Batuetako adituek diotenez, pobrezia desager liteke. Nahikoa litzateke sarrera globalen %1 eta herrialde aberatsen sarrera nazionalen %2 inbertitzea. Munduan 1.300 milioi behartsu daudela jotzen da. Pobrezia gero eta handiagoa da.



India. **Alboan**.

Munduko ezberdintasuna



Colección de dibujos Norte - Sur. Intermón.

“Emakumeek gizarte bizitzan ardura eta parte hartzea lortu behar dute” (Pedro Arrupe). “Oraindik geratzen zaigu, iraganetik jasota, emakumearen aurkako diskriminazio sistematikoa, gure gizarteen egitura ekonomiko, sozial, politiko eta erlijiosoetan, baita hizkuntzan ere, sendo erroturik.” (34. B.N., 14. d)

Emakumeak eta Pobrezia

Pobreziak are gogorrago jotzen ditu zenbait talde. Munduko pobreetatik %70 emakumeak dira, horregatik hitz egiten da pobreziaren feminizazioaz. Ekonomi, historia, gizarte edo kultur kontuak direla eta, emakumeak jabetzatik, hezkuntza sistematik, lan merkatutik eta abarretik kanpo uzten dira bazterturik. Horrez gain, bereziki sufritzen dituzte gerrak, hondamendi “naturalak”... eta, gainera, euren familiak aurrera ateratzeko ardura hartu behar dute beren gain.

Emakumearen diskriminazioa unibertatsala da, baina emakumeak Hegoaldean pairatzen du gehien, Hegoaldekoa izateagatik eta emakumea izateagatik.

Genero Diskriminazioa

“Genero” diskriminazioaz hitz egiten da “sexu” diskriminazioaz baino gehiago. Sexua datu biologikoa da. “Generoa” diogunean, ostera, **sexuen artean sortutako desberdintasun sozialak** ditugu gogoan, alegia, ezaugarri biologikoak ez ezik, ezaugarri kultural, ideologiko, sozial eta ekonomikoak ere kontuan harturik.



India. Alboan.



Genero Diskriminazioari buruzko Datu batzuk

- Munduan egiten den lanetik emakumeek 2/3 egiten dute, baina mozkinen 1/5 baino ez dute jasotzen. Gainera, munduko jabetzaren %1 besterik ez dago haien esku.
- Munduan diren ia 900 milioi analfabetoetatik %70 emakumeak dira.
- Hegoaldean, nekazaritzako langileen %70 emakumeak dira.
- 500.000 emakume hiltzen dira urtero haurdunaldiko arazoak direla-eta, eta 500ek galtzen dute bizitza gaizki egindako abortuetan.
- Lekuz aldarazitakoen %80 emakumeak dira.
- 110 milioi emakume daude sexu organoak mutilaturik, eta urtero-urtero 2 milioi gehiago.
- Hiru emakumetan, batek tratatu txarrak hartzen ditu.

Emakumeen garrantzia

Emakumeen eginkizuna, ordea, funtsezkoa da komunitateetan. Gehienetan haiek ziurtatzen dute komunitatearen biziraupena eta garapena bultzatzen. Horregatik, emakumeen diskriminazioa eragozpen handia da garapenerako.

Emakumeen adierazpenak²

“Atera kontuak gauzak nola diren; emakume bat lan bila badabil, esterilizazio agiria edo haurdun probak egin dituela erakutsi behar du...”

Anita, zapatagintzako langilea, Brasil.

“Lagarren umea izan ondoren, ezin nuen gehiago, baina ez nuen lortzen gizona konbentzitzerik”.

Boliviako emakumea.

“Etxe abandonatu bat hartu eta haurgintzako gela bat eta odontologi zerbitzua zabaldu genituen auzo guztiarentzat”.

Mexiko Hiriko aldirietako emakume taldea.

“Hezkuntza funtsezkoa da pertsonen eta herrien garapenerako. Ez bakarrik “gauzak egiten” ikasteko, baizik eta, batez ere, autoestima, konfiantza eta norberaren kulturaganako estima berreskuratzeko.”
(Pedro Arrupe, Lisboa, 1980).

Hezkuntzaren garrantzia

Hezkuntza beharrezko baldintza da gizartearen sormena garatzeko eta gizakiaren garapen orekatua lortzeko. Gainera, hezkuntza pertsona ororen eskubidetzat aitortzen da Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta UNESCOren Kartan. Hezkuntza benetako altxorra dela esan daiteke.

Oinarrizko Eskubide bat zapalduta

Hala ere, hainbat eta hainbat jende dago gutxieneko hezkuntza ere hartu ezin duena:

- 100 milioi baino haur gehiagok (%60 neskek) ez dute lehen hezkuntza egiterik
- Beste horrenbeste haurrek eta heldu askok eta askok ez dute amaitu oinarrizko hezkuntza.
- 850 milioi heldu baino gehiago (%70 emakumeak) analfabetoak dira.

Ikus ditzagun ume eta guraso batzuen aitortpenak:

- “Egun batzuetan eskolara joaten naiz, baina gutxitan, neba-arrebak zaindu behar ditut eta iturritik ura ekarri”.
(Angélica, 10 urte, El Salvador)
- “Eskolara banoa, ezin ditut abereak zaindu”. (Ibrahim, 8 urte)
- “Aitak dio hobe dudala artatxikia ehotzen gelditu, eskolaraino 6 kilometro ibili baino”.
(Suril, 11 urte. Kenya)
- “Ezin ditugu hiru umeen koadernoak, lapitzak eta janaria ordaindu eta, azken finean, zer edo zer ikasi arren, beti izango dira txiroak; hobeto daude etxean laguntzen”. (Zafar 6 urteko haurraren aita, Pakistan)



Hezkuntzarik ez hartzeko arrazoi batzuk

- **Pobrezia.** Aitorpenetan ikusten denez, familia behartsu askok seme-alaben ikasketak, alabena batez ere, sakrifikatu behar dituzte ikasketak ordaintzeko bitartekorik ez dutelako eta etxean haurren laguntza behar dutelako.
- **Hezkuntzako gastuen murrizketa.** Herrialde askok diru gehiago erabili behar dute kanpoko zorra (herrialde aberatsei zor dietena) ordaintzeko hezkuntzarako baino. Beste batzuek nahiago dute dirua armetan alferrik galdu. Hala, maisu-maistren soldatak baxu-baxuak dira eta horrek asko kaltetzen du hezkuntzaren kalitatea.
- **Hezkuntzako oinarrizko azpiegitura eta baliabide materialen falta:** eskola askok ozta-ozta betetzen dituzte eskolak eman ahal izateko gutxieneko baldintzak. Batzuetan leihorik gabeko barrakoiak izaten dira. Sarritan, liburuak luxua dira, eta ikasleek koadernorik ere ez dute edukitzen.

Denentzako hezkuntza egoteko 6.000 milioi dolar inbertitu beharko lirateke urtean. Estatu Batuetan bakarrik, kosmetikoetan 8.000 gastatzen dira urtean.



Bolivia. Alboan.

“Lotsagarria da seme-alabak behar bezala hezteko modurik ez izatea eta kaleko arriskueta atera beharra, gaixotasunera, miseriara; haietako asko deitoratu beharra, umetan hilda.”
(Pedro Arrupe, 1966, Latinoamerikako apostolutza sozialari buruzko Agiria)


Haurrak dira gizarteetako talderik ahulena, eta pobreziaren ondorioak larriki sufritzen dituztenak, beraiek direlako beren burua defendatzeko ahalmen gutxien dutenak. Berriz ere ikusten dugu pobrezia dela munduko haurren arazo askoren sorburua.

Haurren eskubideak

1959an Haurraren Eskubideen Deklarazioa onartu zen, eta 1989an Haurraren Eskubideen Ituna. Herrialde gehienak itun hauetako partaide dira. Hona hemen hitzarmen hauetan irmo aitortutako eskubideetako batzuk:

- **Tratu txarren aurkako babesa** (19. artikulua): haur guztiak babesten ditu era guztietako abusu fisiko edo mentaletatik, tratu txarretatik, esplotaziotik, sexu abusetatik, etab.
- **Osasuna eta elikadura** (24. artikulua): haur batek ere ez luke pairatu edo hil behar erraz senda daitezkeen gaixotasunen ondorioz, ezta desnutriziorik jasan ere.
- **Haurren lana eta sexu esplotazioa** (32. eta 34. artikulua): haurrei babesa ematen diete arriskutsuak edo haien hezkuntzarako oztopo izan daitezkeen lanak egitetik, eta prostituziotik eta bestelako sexu abusetatik.
- **Gatazkak eta gerrak** (38. artikulua): haurrak ezin dira soldadutzat hartu eta babes berezia eman behar zaie gerra denboran.

10 eta 14 urte bitarteko haur langileen kopurua



Piura, Perú. **Alboan.**



Haurren lan esplotazioa

Lan esplotazioa dugu haurren eskubideen zapaltze larrietakoa. Lanaren Nazioarteko Erakundeak dioenez, munduan 250 milioi baino gehiago dira lan egiten duten haurrak. Umeen lana kaltegarria eta esplotatzailea da osasun fisiko eta mentalerako txarra bada, haurren heziketa galarazten badu, eta lagunekiko eta inguruko gizartearekiko harremanak eragozten baditu.

Noiz gertatzen da **esplotazioa**?:

- ume-umetan lan egiten dutenean (baita 5 edo 6 urterekin ere)
- egunean ordu asko egiten dutenean (baita 12-16 ordu ere)
- oso lan gogorrek, arriskutsuak eta segurtasun gabe egiten dituztenean
- pobreziatik irteteko adina ordaintzen ez zaienean
- haurren duintasuna eta autoestima zapaltzen direnean: prostituzioa, esklabotza egoerak...



India. **Alboan**.

Irtenbideak

UNICEF (Nazio Batuen Haurrentzako Fondoa) erakundearen esanetan, 25.000 milioi dolarreko inbertsioa beharko litzateke munduko haurren oinarritzko premiak asetzeko (elikadura egokia, edateko ura, osasun asistentzia eta oinarritzko hezkuntza). Europarrek 50.000 milioi gastatzen dugu urtean zigarroetan.



Colección dibujos Norte - Sur. Intermón.

“Maiz ikusten ditugu pertsona, talde eta nazio osoen oinarrizko eskubideen zapalkuntzak. Sistema eta egitura bidegabeek hainbat eta hainbat gizaki mendetasunean biziartzen dituzte, eta desberdintasunak betiketozera eta handiagotzera jotzen dute. Halako egoerek gatazka oldartsu eta suntsitzailleetara daramatzate gizonak.”

(Pedro Arrupe, Erroma, 1972, Justizia eta Bakearen Batzorde Pontifikalaren aurrean)

Giza eskubideen zapaketak bai Iparrean bai Hegoan gertatzen dira. Adibidez:

- USAko estatu askotan heriotza-zigorra indarrean dago. Heriotzara zigortutako gehienak beltzak eta hispanoak dira.
- Algerian, talde fundamentalisten arauak onartzen eta jarraitzen ez dituzten emakumezko profesionalak bortizki hiltzen dituzte.
- Europan, hainbat etorkin “ilegaltasunera”, “inexistentziara”, kondenatuta daude, euren oinarrizko giza eskubideez baliatzeko aukerarik gabe.
- Kolonbian, gobernuaren oposizioko hainbat lider eta sindikalista hiltzen dituzte “paramilitarrek” edo “desagertu” egin dira.
- Espainian, gazte askok ezin dute lanik lortu, ezta etxebizitza duinik ere.
- Txinan, hainbat pertsona espetxeratzen dituzte langileen eskubideak aldarrikatzeagatik.

Zer dira giza eskubideak?

Giza eskubideak **denok**, pertsona izateagatik, gure izaera eta duintasunagatik, ditugun oinarrizko eskubideak dira.

Giza eskubideen deklarazioak garrantzi handikoak dira. Giza eskubideak **gizateriaren lorpen ukaezina** dira, eta etengabeko borroka eta ahalegina behar da benetan bete daitezen. Hori denon ardura da, ez baita nahikoa idatzita egotea; **egia egin behar ditugu**, egunez egun, gudan eta gure inguruan.

Oinarrizko giza eskubideen aurkako erasorik larrienetako bat pobrezia dugu, Iparraren eta Hegoaren arteko harreman bidegabeek dakarten pobrezia hain zuzen ere.



Ruanda. **Alboan**.



Zeintzuk dira gure eskubideak?

Giza eskubideak hiru mailatan bereizi ohi dira:

- Lehen mailan **eskubide zibil eta politikoak** ditugu. Besteak beste, bizitza, askatasuna, segurtasun fisikoa, berdintasuna, kontzientzi askatasuna, adierazpen askatasuna, botoa, elkartzeko askatasuna...
- Bigarren mailan **ekonomi, gizarte eta kultur eskubideak** ditugu: goserik ez paitratzea, hezkuntza, osasuna, lana, etxebizitza...
- Hirugarren mailakoei **elkartasunezko eskubideak** esan ohi zaie: bakea, ingurugiro osasuntsua, pertsonen eta herrien garapena...

Mailatan banandu ohi diren arren, eskubideok **banaezinak eta elkarren menpekoak** dira: Izan dezakegu askatasunik gosez? zertarako sabela beterik eduki, ezin bagara elkartu, ezin badugu gure pentsaera eta iritzia askatasunez adierazi torturarik jasan gabe?



Ruanda. **Alboan**.


“Arma beti gero eta sofistikatuago eta garestiagoak egiten jarraitzen dugu; hau lotsagabekeria onartezina da, lotsari ikaragarria, eta etorkizuneko belaunaldiek, arrazoi osoz, horren errua egotziko digute.”

(Pedro Arrupe, Filadelfia, 1976)

1990etik hona 90 gerratik gora sortu dira 70 herrialdetan. Gerra horietan ia 6 milioi pertsonak galdu dute bizia. Gaur egungo gerrateetan, gainera, biktimen %90 zibilak izaten dira. Egungo gatazkek badute beste ezaugarri bat ere, alegia, gehienak estatuen barruan sortzen direla eta ez hainbeste, lehen bezala, estatuen artean.

Gaurko gerren beste alderdi ikaragarri bat da haurrek ere hartzen dutela parte soldadu moduan. 200.000 haur inguru ari dira egungo gatazketan soldaduairena egiten. Haurrak dira gatazken ondorio latzak gehien sufritzen dituztenak.

“Beti joaten gara egurretan herri inguruetara. Egun batean, Laila, zortzi urteko ahizpa, eta biok egurretan atera ginen. Leku batean egur asko aurkitu genuen eta poz-pezik ipini ginen. Azkar-azkar, ahalik eta egur gehien batu genuen. Handik minutu batzuetara, Lailak esan zuen oihuka: “jostailu polit bat topatu dut! Nirea da eta ez dizut utziko”. Nik protesta egin nuen eta esan nion: “Egurra elkarren artean banatzen badugu, topatzen dugun guztia ere elkarren artean banatu behar dugu”. “Ez horixe”, esan zidan Lailak. Atzetik joan nintzaion korrika eta harrapatu egin nuen. Laila jostailua hartzen saiatu zen. Une hartan zarata handia entzun nuen eta lurrera jausi nintzen. Eskuetan odola neukan. Bi atzamar falta nituen. Berehala Lailaren bila hasi nintzen, nahiz eta beldurtuta egon. Negarrez zegoen, eskuak begien gainean. Begiak galdu zituen. Mina bat izan zen. Jostailu hilgarria” Naiza, 10 urte, Afganistan.



Colección Paz y Desarme. Intermon.



Gatazken Arrazoiak

Gatazkek eragiten dituzten arrazoiak korapilotsuak eta era askotakoak izaten dira. Hemen gatazken sorburuan izaten diren arrazoietakoz batzuk aipatuko ditugu. Gehienetan gatazka bakoitzean haietako batzuk elkartzen dira.

- **Pobrezia:** aberastasuna bidegabekeriaz gutxi batzuen eskuetan izaten den gizarteetan eta gehiengo oinarriko beharrianak gozatzetik ere baztertuta dagoenean, probabilitate handia dago gatazkek sortzeko.
- **Demokraziarik eza:** sistema demokratikoak eta giza eskubideak bermatuta dauden gizarteetan errazagoa da gatazkei irtenbide baketsuak aurkitzea.
- **Etnia arazoak:** herrialde batean talde batek besteak menperatuta dauzkanean.
- **Ingurugiro edota lurralde kontuak:** batzuetan gerrak sortzen dira baliabide naturalak (ura, esaterako) dituzten lurraldeak eskuratzearren.

Gatazkek jendearen buruan hasten direla ere esan ohi da, lagun hurkoa etsaitzat hartzen dugunean, gauzak halaxe direla esan digutelako, historia halaxe kontatu digutelako. Gatazkei irtenbide baketsua emateko, jabetu behar dugu denok garela gizakiak eta askoz gehiago direla batzen gaituzten gauzak banatzen gaituztenak baino.

Armen negozio itzela

Gatazken sorrera ulertzeko beste gako bat armen merkatua eta estatuek dituzten gastu militarrek ditugu.

Harrigarria bada ere, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Frantzia dira arma gehien saltzen dituzten herrietako batzuk. Harrigarria diogu, herrialde hauek Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluko kide finkoak direlako, eta honen eginkizuna munduko herrialdeen artean bakea eta egonkortasuna bermatzea delako.

Gastu militarrek berriz ere gora egin du zenbait urtetan murriztuz joan ondoren. Kalkulatu denez, munduko gastu militarra urtean 780.000 milioi dolarretakoa da. Gutxi gorabehera oinarriko zerbitzuak mundu osora iristeko beharko litzatekeena baino 26 bider handiagoa.

“Errefuxiatuek gero eta pobretze handiagoa dute aurrean eta bizitzaren zentzuaren eta kulturaren galera, inolako itxaropenik gabe.”
(34. B.N., 3. d)

Errefuxiatuak, “jomugarik gabeko ibai horiek”

Gaur egungo gatazken ondorio larrietako bat ihes egin beharra da, norberaren familia, etxea, ondasunak, komunitatea... utzita, bonbarik gabeko leku seguru bat bilatu beharra, norberaren oinarrizko beharrianak bete ahal izateko.

Baina gatazkek ez dira ihes egin beharra dakarten eragile bakarrak. Arazo ekonomikoak, hondamendi naturalak, goseteak edo azpiegiturako proiektu handi batzuek ere eragiten dute ihesa.

Munduan 100 bat milioi lagun omen daude euren etxea utzi behar izan dutenak bizirik irauteko aukera baten bila abiatzeko. 100 milioi horietatik, ia erdiak errefuxiatuak edo lekuz aldarazitakoak dira, jazarpenetik, indarkeriatik, gerratik eta heriotzatik ihes egin dutenak. Errefuxiatuak beste herrialde batera heltzen direnak dira. Lekuz aldarazitakoak ihesaldian euren herrialdeko mugen barruan gelditzen direnak dira. Deserroturik dauden pertsonen beste erdiak pobreziatik edo ingurugiroaren hondamenditik ihes egindako etorkinak ditugu.



Ruanda. Alboan.

Aldean daukatenarekin irten, gaizki bizi eta "ezerezera" bueltatu

Errefuxiatuen %80 emakumeak eta haurrak dira. Gaur egun gehienak afrikarrak eta asiarrak. Normalean talde handitan irten dira, exodo jendetsuan. Horregatik, Matvejevic idazleak "jomugarik gabeko ibai horiek" diotse. Badakite noiz atera diren, baina ez dakite nora iritsiko diren eta, txarrena dena, ez dakite inoiz berreskuratuko duten atzean utzitakoa.

Askotan, asilo eske dabiltzan errefuxiatuei ukatu egiten zaie leku segurua, edo atxilotu eta segurtasuna bermatuta ez duten lekuetara itzularazten dituzte indarrez. Batzuetan erasoak jasaten dituzte edo armadarako erreklutatuak izaten dira. Sarritan, errefuxiatuen esparruak ez dira giza duintasunaren mailara iristen. Errefuxiatu gehienek, etxera itzultzen direnean, gerrak eragindako hondamena aurkitzen dute, euren etxeak suntsituta edo beste batzuen eskutan, soroak minaz ereinda.

Lekukotzak

- *"Serbiar poliziak 15 minutu eman zigun maletak egin eta etxetik irteteko. Baina mazedoniar poliziak baldintza jasanezinetan eduki gaitu hemen"*

(Vicar, albanokosovar errefuxiatua)

- *"Errefuxiatu gehienek beheranzkoak eta azaleko zoldurak dituzte. Esparruan ez dago garbitzeko urik, eta komunak gainezka daude. Epidemia bat sortuko ote den beldur gara"*

(Rudolph, Mugarik gabeko medikuak, Zaire)

- *"Gogaituta geunden egunero-egunero janari apur baten eske ibiltzeaz eta etxera itzultzea erabaki genuen, han behintzat zerbait erein ahal izango genuela eta. Etxeak hondatuta topatu genituen. Soroak haustuta. Abereak desagerturik. Orain ez daukagu ezer"*

(Margarita, lekuz aldarazitakoa, Kolonbia)



Ezagut

ITZAZU MUNDUKO

ARAZOAK



Colección dibujos Norte - Sur. Intermón.

“Nahi dugun gizarte berria ez da pertsona bakoitzak gauza gehiago edukitzekoa, pertsona bakoitzak gizakia den aldetik betetasun handiagoa lortzekoa baino.”

(Pedro Arrupe, 1966, Latinoamerikako apostolutzazko sozialari buruzko Agiria)

Kontsumo kopuruek gora eta gora egiten dute etengabe. Gero eta gehiago kontsumitzen da, baina arazoa da kontsumo hori guztiz txarto banatuta dagoela. Esaterako, munduko %20 aberatsenek okela guztiaren %45 jaten dute, eta %20 pobreenen sabeletara kontsumitutako okelaren %5 ere ez da iristen (eta ez, alajaina, belarjaleak direlako!). Nahiz eta kontsumoa hazi eta hazi, milioi bat lagunek baino gehiagok ezin dituzte premia oinarrikoenak ere bete. “*Txiroen beharrianak aberatsen nahi eta apeten gainetik daude*” dio esaldi ezagun batek, baina, bene-benetan kontrara gertatzen dira gauzak. Kontraesan handi baten aurrean gaude, beraz: kontsumoak gora egiten du baina ez da denengana iristen.

“Kontsumitu egiten dut, beraz, banaiz”

Gure eredu ekonomikoak gehiago hartzen ditu kontuan erosi ahal dutenen nahiak, bazter-tuta daudenen benetako beharrianak baino. Gainera, askotan kontsumitzen dugu ez gure oinarriko premiak asetzeko, baizik eta gure auzokoak, lankideak, goi mailakoak, etab. imitatzeko. Esan liteke parekotzat hartzen ditugula gehiago kontsumitzea eta zoriontsuago edo pertsona hobek izatea. Badirudi ez dakigula ondo pasatzen kontsumitu gabe.

Publizitatearen erasoak eragin handia du kontsumoan. Publizitate gastuak %700 hazi dira azken berrogei urteotan. Ziur aski, gizartea ahaleginduko balitz behartsuen oinarriko premiak asetzen dirudunengan erosteko grina pizteko erabiltzen ditugun irudimen eta baliabideen zati txiki batekin, luzaro gabe lortuko genuke pobrezia desagertzea.



Neurri gabeko kontsumoaren ondorioak

Ekologiak ezin dio eutsi gure kontsumitzeko moduari. Gero eta gauza gehiago kontsumitzen dugu, naturaren baliabideak ahitzen ditugu, ingurugiroa kutsatzen dugu eta ekosistemak suntsitzen ditugu. Lurra gauzaz "beterik" dago eta laster ez da beste ezertarako lekurik egongo.

Herrialde industrializatu batean jaiotako ume batek herrialde pobretuetan jaiotako 30-50 umek adina poluzio sortuko du bere bizitza osoan zehar.



Colección dibujos Norte - Sur. Intermón.

Ikusten dugunez, gure kontsumo ereduak jende asko uzten du bazterrean eta guri errealitatearen sena galarazi ahal digu. Gauzaz inguratuta bagaude, ez dugu ikusten harago badirela baztertuta dauden pertsonak.

Kontsumoa garapenerako bidea izango bada, baldintza hauek bete behar ditu:

- pertsonen ahalmena handitu, alferrikakoa izan barik
- besteen ongizateari kalterik ekarri ez, ez dituelako bazterrean uzten
- Lurra eta natura errespetatu.

Erronka bat dugu: beste era batera kontsumitzen ikastearena, arduratsu eta kontzientziatz. Elkartasunezko merkataritza justuak beste modu batera kontsumitzen irakasten digu, irizpide ekonomikoak ez ezik, elkartasuna eta justizia ere gogoan hartuta.

“Baliabide naturalen eta ingurugiroaren ustiapenak bizi kalitatea kaltetu, kulturak hondatu eta pobreak miseria gorrian itotzen ditu.”

34. B.N., 3. d

Nahiko urte dira inguruarekiko kezka gure artean dela. “Produktu ekologikoak” ditugu, material batzuk birziklatzen eta berrerabiltzen hasiak gara, “energia garbiak” aurkitzeko arduradugu... Hala ere, ingurugiroa gero eta kaltetuago dago.

Nork kutsatzen du?

Ingurugiroaren degradazioa eta suntsipena jendeak gehiegi duenean gertatzen da, baina baita jendeak gutxi-gutxi duenean ere: batetik, aberatsen kontsumoa jasangaitza eta suntsitzailea da ingurugiroarentzat. Bestetik, pobreak askotan gehiegi ustiatu behar izaten dute ingurua bizi ahal izateko.

Dena dela eta oro har, herrialde eta gizarte aberatsek kutsatzen dute gehien. Dioxido karbono emisioen %70 eta industri hondakinen %68 herrialde industrializatuetatik dator, bertan biztanleriaren %20 besterik bizi ez bada ere.



Guatemala. **Alboan.**



Garapen eredia da kontua

India Erresuma Batutik banandu zenean (1947), zera galdetu zioten Gandhiri: *“orain India-ren helburua Ingalaterrako bizi mailara iristea izango da, ezta?”*, eta lider indiarrek erantzun zuten: *“Ingalaterrak mundu erdiaren jabe egin behar izan du dagoen lekura heltzeko, zenbatez jabetu beharko ginateke gu India maila horretara iristeko?”*

Garapena hazkunde ekonomikoarekin identifikatzen duen eredu honen ildotik, Lurrak ezingo du ekoizpen gero eta handiagoaren zama betiko jasan, baliabideak ahitu egiten baitira eta kutsadura handia sortzen baitu. Batzuetan, ekonomiak etengabe haztea baino ez du kontuan izaten, etengabeko hazkunde horrek ingurugiroari eragin ahal dion kaltea gogoan hartu gabe. Denon beharrianak eta ingurugiroarenganako errespetua kontuan hartzen ez dituen garapena ez da benetako garapena.

Nork sufritzen du gehien ingurugiroaren hondamena?

Beste kontu garrantzitsu bat dugu jakitea nork jasaten dituen gehien kutsaduraren ondorioak. Berriz ere txiroek pairatzen dituzte gehien, bitarteko eta ahalmen gutxiago dutelako ondorio kaltegarri horietatik babesteko. 500 milioi lagun baino gehiago bizi omen dira ekologiko-marjinalak diren lurraldeetan.



Colección de dibujos Norte - Sur.

Hondamendi naturalak gertatzen direnean, haizerauntsiak, lurrikarak edo uholdeak, alde marjinal horietan bizi direnek sufritzen dute gehien. Hortaz, “hondamendi naturalak” “hondamendi sozialak” dira neurri handi batean: txiroak alderik txarretara baztertu behar dira; gainera, gehiegi ustiatzen dituzte bizi ahal izateko, eta hondamendia datorrenean, haiek ordaintzen dute.

Laburbilduz, ingurugiroaren hondamena pobrezia-aren sorburu garrantzitsua da eta aberats eta txiroen arteko amildegia sakonago bihurtzen ari da.

"Aldaketaren eragile izan behar dugu gure gizartean, egitura bidegabeak aldatzeko lan eginez."

(Pedro Arrupe, Valentzia, 1973. Ikasle Ohien X. Biltzarra)

Nahiz eta makina bat bider esaten zaigun "ez dago zer eginik, ezin da ezer aldatu", denok dugu ahalmena gauzak beste era batera izan daitezen eragiteko.

Galzak aldatu egin daitezke...

Uruguaiako Eduardo Galeano idazleak dioenez, egin ahal duguna "*gauza txikitxuak dira (...) baina egiteko poza pizten dute. Errealitatearen gainean zerbait egitea eta aldatzea, apur bat baino ez bada ere, modu bakarra da errealitatea aldagarria dela frogatzeko*".

Lehendabizi, jabetu egin behar gara egiten dugun guztiak (jaten, gastatzen, dibertitzen garenean) eragina duela besteengan, beste horiek urrunekoak izan arren. Eguneroko bizimoduan arduratsuak bagara, errazagoa izango da gauzak aldatuz joan daitezen. "*Globalean pentsatu, lokalean ekin*" lemak oso ondo adierazten du helarazi nahi dizuegun ideia. Elkartasuna bizimodu berri batetik sortuko da, norberaren beharrianak asetzeko modu berri batetik, besteekin eta izadiarekin erlazionatzeko modu berri batetik. Ez dago duda izpirik: asko egin ahal dugu.



Bajo el mismo techo. Hegoa.



India. Alboan.



Egogut
ITZAZU MUNDUKO
ARAZOAK

... horretan ahalegintzen bagara

Hona hemen ekintzarako ideia batzuk

<p>Nazioarteko desberdintasunen eta munduko arazoek kontzientzia hartu³</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Interesa, informa eta hezi zaitez herrialde pobretuen arazoez. • Jakin ezazu nondik datozen jaten dituzun gauzak, janzten dituzun arropak, etab. • Hitz egizu lagunekin gai hauetaz. • Eska iezaiezu irakasleei herrialde pobretuen arazoez hitz egin dezatela eskolan. • Baduzu adina "politika" kontu horietaz apur bat arduratzeko.
<p>Nazioarteko elkartasuneko erakundeei lagundu eta haietan lan egin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Apunta zaitez gobernu kanpoko erakunde batean, eska iezaiezu informazioa, boluntario moduan lagundu, ahal baduzu. • Antola ezazu talde bat ikaskideekin eta irakasleekin herrialde pobretuei laguntzeko. • Entera zaitez zer diren "adiskidetzak". Agian gutun-harremanak izan ditzakezu beste herrialde batzuetako neska-mutilekin.
<p>Nazioarteko elkartasuneko ekintza kolektiboetan parte hartu</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Eman zure dirutik zati bat gobernu kanpoko erakunderen bati eta anima itzazu lagunak ere gauza bera egiten. • Anima ezazu zure familia %0,7 ematera. Hitz egin honetaz etxean. • Antolatu irakasle eta ikaskideekin kanpainaren bat gai zehatz baten gainean. • Lagundu elkartasuneko kanpainetan. Protesta gutunak bidali. Idatz ezazue klasean eskutitz bat kezkatzen zaituzten gai bati buruz egunkarira bidaltzeko. • Nazioarteko elkartasuneko manifestazioetan parte hartu. • Etorkinei lagundu. • Kontuz zer kontsumitzen duzun. Arduratsua eta kritikoa izan kontsumitzeko orduan. • Merkataritza zuzenari lagundu. • Arduratu zaitez zure egintzek ingurugiroari dakarzkieten ondorioez.

³ R.Díaz-Salazarren "Redes de Solidaridad Internacional" obran oinarritua. HOAC, 1996.



India. Alboan.



Alboan

BILBAO

Padre Lojendio kalea, 2, 2. • 48008 - BILBAO

Tel/Faxa: 944 15 35 92

e-maila: alboanbi@alboan.org

IRUÑEA

Bergamín kalea 32 • 31004 - IRUÑEA

Tel/Faxa: 948 23 13 02

e-maila: alboanna@alboan.org

Laguntzaileak:



Compañía de Jesús

Loiola Probintzia



BILBOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BILBAO

